

Printzesek ere

puzker egiten dute



Ilan Brenman
Ionit Zilberman

algar

Eskolatik itzulitakoan, Laurak aitari deitu,
eta galdetu zion:

–Printzesek ere puzker egiten dute?

–Zer dela eta jakin nahi duzu hori? –galdetu zion aitak, jakin-minez.

–Izan ere, eskolan zurrumurruak dabilta... Baina zer gertatu den
kontatu baino lehen, galderari erantzutea nahi dut.

–Baietz uste dut, printzesek ere puzker egiten dutela –erantzun zion
aitak, ahal bezain goxo.





–Ezin liteke, aita; eskolan izan dugun eztabaida, horrexegatik izan da. Martxelok neskoien esan digu Errauskinek puzker asko botatzen zituela. Neska guztiok esan diogu hori ezinezkoa zela, inongo printzesak ez duela puzkerrik egiten. Baina orain iruditzen zait Martxelo beharbada zuzen zebilela... Aita, zuk nola dakizu printzesek puzker egiten dutela?



Alabak bezala, aitzak oso maite zituen liburuak eta istorio ederrak. Jaiki, eta liburutegira jo zuen: Laurari begiratu, eta keinu bat egin zion, hatza ezpainen gainean jarrita. Isilik egon behar zutela esaten ari zitzaion. Bila eta bila aritu ondoren, aitzak liburu bat aurkitu zuen; itxuragatik, gutxienez berrehun urte izan behar zuen liburu bat.



–Zer da hori, aita?

